UDALBATZARI

**Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen zerga ordenantza**

Familia ugarientzako zerga hobaria.

Batzar Nagusiek zerga aldaketa jakin batzuk onartu zituzten, abenduaren 23ko 7/2015 Foru Arauaren bidez (GAO, 2015-12-28).

Aipatutako Arau horren 7. artikuluan, honako aldaketa hau onartzen da: Uztailaren 5eko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren 14/1989 Foru Arauaren 4.5 artikuluari d) letra gehitzea, eduki honekin:

“d) 100eko 90erainoko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera”.

Gaur egun indarrean dauden kategoria fiskalak eta haien kuotak honako hauek dira:

- a) 9 zaldi fiskal baino gutxiago...............41,01 €
- b) 9-11,99 zaldi fiskal bitartekoak…….. 83,68€
- c) 12-13,99 zaldi fiskal bitartekoak.......141,80 €
- d) 14-15,99 zaldi fiskal bitartekoak.......202,78 €
- e)16-19,99 zaldi fiskala bitartekoak…..267,70 €
- f) 20 zaldi fiskal baino gehiagokoak…..335,80 €

Kategoria igotzeagatiko tarifaren igoera honako hau da:
- d % 43 gehiago da, c baino.
- e % 32 gehiago da, d baino.
- f % 25,4 gehiago da, e baino.

AL AYUNTAMIENTO PLENO

**Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica**

Bonificación en el Impuesto para las familias numerosas

Las Juntas Generales aprobaron en Norma Foral 7/2015 de 23 de diciembre (BOG 28-12-2015) determinadas modificaciones tributarias.

En el artículo 7 de dicha Norma, se aprueba la siguiente modificación: Se añade una letra d) al artículo 4.5 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, con el siguiente contenido:

«d) Una bonificación de hasta el 90 por 100 a favor de un sólo vehículo turismo de cinco o más plazas, cuya titularidad recaiga en algún miembro de la familia, en los supuestos en que ésta tenga la consideración de familia numerosa de acuerdo con la legislación vigente».

Actualmente las categorías fiscales en vigor y sus cuotas son las siguientes:

- a) menos de 9 CF.....................................41,01€
- b) De 9 hasta 11,99 CF ….........................83,68€
- c) De 12 hasta 13,99 CF.........................141,80€
- d) De 14 hasta 15,99 CF.........................202,78€
- e)De 16 hasta 19,99 CF ….....................267,70€
- f) De 20 CF en adelante …......................335,80€

El incremento en la tarifa por categoría superior es:
- la d respecto a la c un 43% superior
- la e respecto a la d un 32% superior
- la f respecto a la e un 25,4 % superior.

Familia ugari batek kategori fiskal handiagoko auto bat erosi behar duela eta kategoria batetik besterako igoera batez beste % 35 ingurukoa dela kontuan hartuta, 10. artikulua aldatzea proposatzen da, 4. atala gehitzeko, zeina honela idatzita geratuko baita.

Partiendo del supuesto de que una familia numerosa necesita adquirir un coche de una categoría fiscal superior, y que el incremento medio de una categoría a otra es aproximadamente del 35%, y existiendo dos categorías de familia numerosa, general y especial, en virtud de enmienda aprobada en Comisión de Hacienda se propone la modificación del artículo 10º, con la inclusión de un nuevo apartado, el 4 a) y b), que quedaría redactado de la siguiente forma:

a) % 35eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

a) Una bonificación del 35%, a favor de un sólo vehículo turismo de cinco o más plazas, cuya titularidad recaiga en algún miembro de la familia, en los supuestos en que ésta tenga la consideración de familia numerosa de Carácter General de acuerdo con la legislación vigente.

b) % 50eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

b) Una bonificación del 50%, a favor de un sólo vehículo turismo de cinco o más plazas, cuya titularidad recaiga en algún miembro de la familia, en los supuestos en que ésta tenga la consideración de familia numerosa de Carácter Especial de acuerdo con la legislación vigente».

<u>Zerga Kuota</u>

Ogasuneko batzordean onarturiko zuzenketaren arabera, Eranskinaren koefiziente desberdinetan % 1eko igoera aplikatzea proposatzen da, turismoetan eta beste ibilgailuetan ezik, ondoko igoerak planteatzen baitira, emaitza moduan honako kuotak suertatuz

<u>Cuota Tributaria</u>

En virtud de enmienda aprobada en Comisión de Hacienda, se propone aplicar un incremento del 1 % en los diversos coeficientes del Anexo, salvo en el apartado de vehículos turismos y otros vehículos, que se incrementarán en los pocentajes que a continuación se indican, resultando las cuotas expresadas:

| Turismoak zaldi potentziaren arabera: | IGOERA | KOEF: | KUOTA: |
|---|---|---|---|
| -9 zaldi fiskal baino gutxiago: ........... | 0,50 % | 2,2413 | 41,01 € |
| -9-11,99 zaldi fiskal bitartekoak: ....... | 1,00 % | 2,2978 | 83,68 € |
| -12-13,99 zaldi fiskal bitartekoak: ..... | 1,50 % | 2,3479 | 143,93 € |
| -14-15,99 zaldi fiskal bitartekoak: ..... | 2,00 % | 2,4100 | 206,83 € |
| -16-19,99 zaldi fiskal bitartekoak: ..... | 2,50 % | 2,4867 | 274,39 € |
| -20 zaldi fiskal baino gehiagokoak: . | 3,00 % | 2,5647 | 349,23€ |

| Turismos según potencias en caballos fiscales: | INCREMENTO | COEF: | CUOTA: |
|---|---|---|---|
| -De menos de 9 caballos fiscales .... | 0,50 % | 2,2413 | 41,01 € |
| -De 9 hasta11,99 caballos fiscales:.. | 1,00 % | 2,2978 | 83,68 € |
| -De 12 hasta 13,99 caballos fiscales: | 1,50 % | 2,3479 | 143,93 € |
| -De 14 hasta 15,99 caballos fiscales: | 2,00 % | 2,4100 | 206,83 € |
| -De 16 hasta 19,99 caballos fiscales: | 2,50 % | 2,4867 | 274,39 € |
| - De más de 20 caballos fiscales: ..... | 3,00 % | 2,5647 | 349,23€ |

| Beste ibilgailuetan: | IGOERA | KOEF | KUOTA |
|---|---|---|---|
| -Ziklomotoreak ............... | 0,50 % | 1,9959 | 9,00€ |
| -125 z.k. arteko motozikletak: ....... | 0,50 % | 1,9959 | 9,00€ |
| -125 z.k.-tik 250 z.k.-ra bitarteko motozikletak: | 1,00 % | 2,3247 | 17,95 € |
| -250 z.k.-tik 500 z.k.-ra bitarteko motozikletak: | 1,50 % | 2,3893 | 36,92 € |
| -500 z.k.-tik 1.000 z.k.-ra bitarteko motozikletak | 2,00 % | 2,4671 | 76,23 € |
| -1.000 z.k.-tik gorako motozikletak:.................. | 3,00 % | 2,5571 | 158,00 € |

| Otros vehículos: | INCREMENTO | COEF | CUOTA |
|---|---|---|---|
| -Ciclomotores .............. | 0,50 % | 1,9959 | 9,00€ |
| -Motocicletas hasta 125 cc: .......... | 0,50 % | 1,9959 | 9,00€ |
| -Motocicletas de más de 125 cc hasta 250: | 1,00 % | 2,3247 | 17,95 € |
| -Motocicletas de más de 250 cc hasta 500 cc: | 1,50 % | 2,3893 | 36,92 € |
| -Motocicletas de más de 500 cc hasta 1.000 cc: | 2,00 % | 2,4671 | 76,23 € |
| - Motocicletas de más de 1.000 cc: | 3,00 % | 2,5571 | 158,00 € |

Horiek horrela, Ogasun Batzordeak Udalbatzari proposatzen dio honako **ERABAKIAK** har ditzala:

En base a cuanto antecede, la Comisión de Hacienda propone al Ayuntamiento Pleno la adopción de los siguientes **ACUERDOS**:

**LEHENENGOA:** Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzako 10. artikuluan, Hobariak, 4. paragrafo bat sortzea onartzea. Honela geratuko da:

**PRIMERO:** Aprobar la creación del párrafo 4º del artículo 10º, Bonificaciones, de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, que queda redactado de la siguiente forma

a) % 35eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori izaera orokorreko familia ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

a) Una bonificación del 35%, a favor de un sólo vehículo turismo de cinco o más plazas, cuya titularidad recaiga en algún miembro de la familia, en los supuestos en que ésta tenga la consideración de familia numerosa de Carácter General de acuerdo con la legislación vigente.

b) % 50eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori izaera bereziko familia ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

b) Una bonificación del 50%, a favor de un sólo vehículo turismo de cinco o más plazas, cuya titularidad recaiga en algún miembro de la familia, en los supuestos en que ésta tenga la consideración de familia numerosa de Carácter Especial de acuerdo con la legislación vigente».

**BIGARRENA:** Onartzea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzaren eranskineko aldaketak, hain zuzen ere, azalpenen zatian adierazi diren aldaketak.

**SEGUNDO:** Aprobar las modificaciones del Anexo a la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, descritas en la parte expositiva.

**HIRUGARRENA:** 2017ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko

**TERCERO:** Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2017, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio,

16.artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakia behin betikotzat hartuko da, baldin eta erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostian, 2016ko irailaren 15ean

Donostia / San Sebastián, 15 de septiembre de 2016

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DEL PLENO

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA